

Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Gaztetasunaren elixirra



Haurtzarotik helduarora arteko tartea da gaztaroa. Urteekin ahuldu egiten da gorputza, eta adimena, berriz, heldu, argitasuna eta esperientzia irabazten ditu. Bizitzaren gauza onak ikusten ikasten duzu, txarrak konturatu gabe etortzen baitira, abisatu gabe.

Abenduko gripe txatxu batek ohean eduki zaitzake hainbat egunez. Ez zara lanera joango, ez duzu irakurtzeko gogorik edukiko eta ogia erostera irteteko aukeran ere ez duzu pentsatuko.

Burua libre denez, senide bati ospitalean bisita egin zenioneko eguna etorriko zaizu gogora. Oso eraikin handia zen, eta gaixo ugari zeuden bertan, bakoitza bere arazoekin.

Pentsatu arretaz... Irratian esan dute 10 milioi espainiarrek dutela osasun aseguru pribaturen bat. Zerbaitengatik izango da! Gaztea zarenean eta osasuntsu zaudenean kontratatzea aholkatzen dute; estaldura gehiago aurki ditzakezu, eta merkeago.

Probatuz gero, ez duzu sekula utziko. Seme-alabak edukitzen dituzunean, zure polizan

sartuko dituzu; izan ere, txikiak direnean nahitaezkoak dira pediatriari egin beharreko bisitak. Gero, ohitu egiten zara zuk nahi duzun espezialista aukeratzeko, gustukoena duzun zentroan, itzarote-zerrendarik gabe eta larrialdietan arreata azkar-azkar lortuta.

Urteek denborak zenbat balio duen erakusten digute. Lanerako, familiarentzako, aisiarako, atsedenerako, sendatzeko denborak...

Segundo batek zenbat balio duen hobeto ulertzeko, galdetu istripu bat eduki duen edonori.

Hilabete batek zenbat balio duen ulertzeko, galdetu seme-alaba goiztiarren bat eduki duten gurasoei.

Eta egun batek zenbat balio duen ulertzeko, pentsatu zenbat denbora behar den espezialistarekin hitzordua lortzeko, osasun arazo bat eduki eta arazoa zein den ez dakizunean. Osasun aseguru bat kontratatzea erabakitzea garamatzaten gogoetak dira. Eta... gripe txatxu bategatik besterik ez.

#E2K
BROKERNET
Aseguru Artekarien
Sare Nazionala

Hileroko buletina
Nº 34 / Abendua 2015

Jai hauetan: Egin lo amets egiteko, eta esnatu ametsak betetzeko

Gabonak jai desberdinak dira, urteko gainerako jaien aldean. Partekatze, atsedean hartzeko, gogoeta egiteko eta etorkizun hobean pentsatzeko gauak eta egunak dira.

Turroi, kanpai-hots eta mahats aleen artean, zure ametsak proiektatu eta gutuna idatziko diezu erregeei, zuretzako eta zure senideentzako proiektuekin. Desira berak ditugu guztiok osasuna, maitasuna... eta, segur aski, 365 egun barru gaur hemen gauden guztiak berriz elkarrekin bildu ahal izatea.

Gure artekaritza-bulegoan, ariketa bera egiten dugu urtero egin hauetan: zure polizaren bermeak ikuskatzen ditugu, eta 2016rako egokiak direla egiaztatzen dugu. Eta gehien maite duzun horren estaldurak hobetzen saiatzen gara beti!

Urte berria lasai, ezustekorik gabe, has dezazun opa dizugu... Amets egiteko lo egitea eta zure ametsak betetzeko esnatzea.

Horregatik, atzera begiratzea animatzen zaitugu, etorkizunari aurre egiteko beldurrik gabe, konfiantzarekin. Uneren batean etsi egiten baduzu, begiratu zure ingurura, eta zure familia eta lagunak zurekin daudela ikusiko duzu. Beste aldean, aseguru-artekariak edukiko gaituzu, zure urratsak babesten.

Zorionak eta urte berri on.



♥ artekari bihotza

Nik nire etxea alokatzen dut, zuk lokal bat alokatzen didazu eta aseguruak biok estaltzen gaitu



«Ni Juan naiz. Ezkongabea. Hogeita hamasei urte ditut eta, azkenean, lan-kontratu mugagabea lortu dut. Beraz, gurasoen etxea utzi eta nire neska-lagunarekin bizitzera noa. Berak bere negozioa jarriko du. Bi alokairu behar ditugu: etxe bat, bizitzeko, eta merkataritza-lokal bat, lan egiteko».

Etxe-jabeak kaudimen ekonomikoa behar du lehenik eta behin. Aurrez hainbat kuota ordaintzea da berme "tradizionala", fidantza, alegia.

Bankuaren abala da beste aukera bat, eta hori ere dirua kostatzen da.

Eta proposamenik onena **Alokairu aseguru**a da fidantza edo abaletik libratuko ditu Juan eta bere neska-laguna, kobratzeko lasaitasuna emango dio etxe-jabeari, eta beste

abantaila batzuk ere ekarriko dizkie bie (errentatzaileari eta errentariari).

Errentariarentzat, aurrezki handia da alokatzeko orduan; izan ere, alokairu aseguru batekin konpentsa dezake abalaren eta/edo fidantzen ordainketa falta. Aseguruan adierazitako ondasunak ere babes ditzake (edukia), ezbehar kasuan.

Eta errentatzailearentzat alokairuaren ordainketak babesten dira; alokairuaren errentak babesten ditu maizterra berankorra izanez gero; maizterraren kontrako erreklamazioaren ekintza juridikoaren kostuak ere estal ditzake, bai eta horren ekintza bandalikoak ere.

Beste zalantzaren bat? Kontsulta iezaguzu.

Guardia Zibila eta Unespa, iruzurraren kontra



Guardia Zibilak eta Unespak akordio bat sinatu dute aseguru-etxeetan izaten diren iruzurrak ikertzeko. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen zein aseguru sektoreko profesionalen arteko komunikazioa erraztuko duten protokoloak ezartzean datza dokumentuko konpromisoa.

Horrelako maulen prebentzioaren eta ikerketen eraginkortasuna areagotzea dute helburu bi erakunde horiek.

2.000 milioi euroko kalte-ordainak erreklamatzeko dituzten 435.000 iruzur ahalegin inguru atzematen dira urtero.

Bolumen handiena Autoetan ematen da (%67), eta ondoren, Etxe, Saltoki, Bulego eta Komunitateetan.

Ondorioak

Kulparik ez duenak ordaindu beharra da okerrean. Iruzurrik ez balego merkeagoak izango lirateke polizak, azkenean **denon artean ordaintzen baititugu kalte-ordainak**.

Gainera...

Iruzur delitu baten salaketa eragin dezake eta, hortaz, epaiketa eta, horren ondorioz, maulagatiko zigorra; eta kalte-ordaina ordaindu beharra ez ezik kartzelan amaitzea ere eragin dezake horrek.

Beraz... **Iruzurrik EZ, eskerrik asko!**

Anekdotak

Arriskutsua da ilegorriak aseguratzea?

«Ile gorria arazoa da; batez ere, bizi-asegurua egiteko orduan. Aseguru-etxeen estatistika-bulegoetan eskura ditugun gertakarien arabera, ilegorriek gainerakoek baino arrisku handiagoa dute. Itxura denez, tisi edo biriketako arazo gehiago eduki ditzakete.»

(The New York Times, 1889 ko uztailak 7)

Hitez hitzeko berria da, New Yorkeko egunkarian ilegorriak eta zaldi zuria izenburuarekin argitaratutakoa. Zertara dator zaldiarena? Garai hartan sinesmen bat zuten: zaldi zuri bat eta emakume ilegorri bat kontrako espaloitik gurutzatzen baziren, emakumea zaldi izana zela esan nahi zuen, eta zaldia, emakume.

Gezurra dirudi, baina hala da!

